saski-naski

ERAKUSLEIHOA

NARRATIBA

'Epizentroa'

Nerea Loiola. Erein. 132 orr. 15 euro.

Lurrikara emozionalak erdigunean jarriz

Zazpi ipuinez osatua da Nerea Loiolaren lehen narrazio bilduma hau. Gai ugari ukitzen ditu: maitasuna, desioa, sexua, gurasotasuna, zoriontasunaren eraikuntza, nahiak-ardurak-ezinak... Estilo fina eta erakarmenindar handiko istorioak, beti giza harremanen ardatzaren jiran, xehetasunari eta keinuari adi. Liburuko kontakizunetako batek ematen dio izena: Epizentroa. «Batzuetan hain gaude geure istorioan murgilduta, ez gara konturatzen beste pertsona baten istorioan bigarren mailako aktoreak besterik ez garela. Edo estrak. Edo dekoratua».

NARRATIBA

'Taxiak ez dira inoiz gelditzen'

Xabier Montoia. Susa. 168 orr. 18 euro.

Zerotik hasi behar duten pertsonaien istorioa

Zenbateraino markatzen dituen halabeharrak gure bizitzak. Gaztetxo bat lehen aldiz maiteminduko da, izeba-osaben etxean ama noiz etorriko zain dagoela; harriek sufritzen ote duten galdetuko dio bere buruari Geologia ikasle batek ezbehar baten ostean; barruko zaratari aurre egin nahi dion emakume batek eguzkia gurtzen duen komunitate batean bilatuko du bakea; harreman gatazkatsua hasiko du dealer batek kirurgia estetikoaren erregina batekin; lagun talde batek mendeku hartu nahiko du jasandakoagatik...

ZALDI EROA